

EREDU LINGUISTIKOEN AZTERKETA EIBARKO IKASTETXEETAN

E. ASTIGARRAGA, I. BERASALUZE, A. BUSTINDUI,
I. EGIGUREN, K. ITURRIAGAGOITIA, X. LOIOLA,
P. PUJANA, M. ZUFIRIA, J. GABIÑA
Eibarko Udala
Euskara Zerbitzua
EIBAR - GIPUZKOA

KOMUNIKAZIOA

1985ean hasitako "Eibarren haurren mundua eta Euskara" ikerketari jarraituz, 1986ko Apiriletik ekainera bitartean, Eibarko Udalak kontratatutako taldeak, herriko ikasle guzien azterketa sakon bat egin zuen, O.H.O.ko eredu linguistikoek lortzen dituzten emaitzak eta emaitza hauetan eragina duten faktore ezberdinen azterketa egin asmoz.

Gaur egun, Eibarko ikastetxetan, Euskadiko beste herri gehienetan bezala, hiru eredu linguistikoak aurki ditzakegu, euskarak daukan presentzi eta tratamendu ezberdinen arabera, A, B, eta D ereduak, alegia.

Laburki azalduko ditugu, eredu bakoitzaren ezaugarriak:

A eredu.—Eredu honen bidez, ikasten duten ikasleak, O.H.O.ko % 44ak suposatzen du Eibarren. Ikasle hauei zuzendutako heziketa guztia gatzeleraz gertatzen da. Euskara beste edozein gai bezala eskeintzen da, astean 4 edo 5 ordu betetzen duelarik.

Teoriaz, eredu hau, haur erdaldunentzat zuzentzen da.

B eredu.—Eibarko O.H.O.ko ikaslen % 25ak ikasten du eredu honetan. Izatez haur erdaldunentzat zuzenduta dago.

Eusko Jaurlaritzak jarri zituen arauak jarraitu ezkerro, eskolako jornada guztiko orduak erdizka banatu beharko lirateke euskara eta erdararen artean.


Esan beharra dago, Eibarko kasuan ez dela arau hori betetzen eta euskararen tratamenduak gorabehera handiak sufritzen dituela ikastetxe batetik bestera bai kuantitatiboki nahiz kualitatiboki.

Heterogeneitate hau dela medio, hiru azpieredutan banatu beharrean aurkitu gara, batez ere O.H.O.ko 2. mailako kasuan.

Aipaturiko azpieredu hauen ezaugarriak ikertu ondoren, A, B edo D ereduetatik hurbil dauden neurrian, BA, BB eta BD izenak erabiliko ditugu. Beraz eredu honek emaitza ugariak eta batzutan kontraezaugarriak eskeintzen ditu, hizkuntz gaitasuna (KEU) edo desberdinak ikus daitezelarik.

D eredu.—Ikaslegoaren % 32ak suposatzen du eta orain dela urte gutxi arte ikastolan soilik eskeintzen bazen ere, gaur egun ikastetxe pribatuetan eta eskola publikoan sartzen ari da. Eredu honetan, euskara gai baten mamia edo edukia izateaz gain beste gai guztiak irakasteko tresna da.

Eredu bakoitzean, eman ditugun ikaslegoaren portzentaiak, datu puntualak dira, baina etorkizuna nolakoa izango den Eibarko kasuan, komenigarria iruditzen zaigu, grafikoa baten bidez, ereduak daramaten bilakaera ikustea.



Argi dago hiru eredu linguistiko hauei dagozkien helburuak, ezberdinak direla; baina etorkizunerako gizarte elebidun orekatua lortzea gure nahia bada, egun haurrei eskeintzen zaien posibilitateak aztertu behar ditugu.

Hori zela eta, 2. eta 4. mailako ikasle guztiak (454, 2. mailan eta 531, 4. mailan) testatu genituen, hots eredu eta tipologia juridiko guztietakoak.

Honez aparte, A. ereduko 8. maila ere aztertu genuen (254 ikasle); azterketa hau lagin baten bidez, eginaz, gela bakoitzeko 16 haur testatuz. Azken lan honekin O.H.O. bukatzerakoan, haurrek zenbaiterainoko euskarazko hizkuntz gaitasuna lortzen duten jakin nahian.

Ikerketa hau burutzeko EIFE delako test psikosoziolinguistikoa erabiltzen erabaki zen. Test honek hiru zati dituelarik:

— Test psikoteknikoa, adimena neurtzeko.

— Galdekizun soziologikoa. Bertan haurra inguratzen duen kontextoa edo ingurugiroa aztertzen da. Jasotzen den informazioa arlo hauei erreferentzia egiten dielarik:

Ikastetxe gela arloa
 Eskolaren eragina arloa
 Haurraren jatorria arloa
 Familia giroa arloa
 Eskola giroa arloa
 Giza giroa arloa
 Haurrak dituen eritzi eta jarrerak arloa

(Guztira 58 aldagai)

—Test linguistikoa.—Atal honetan, haurrak zuen hizkuntz gaitasuna neurtzen genuen, bai euskaraz, bai erdaraz. Gaitasuna hau lortzeko lau froga linguistikoak pasatzen genien haurrei:

- Ahozko ulermena
- Irakurmena (4. eta 8. mailakoei)
- Idazmena (4. eta 8. mailakoei)
- Mintzamena

Azken atal honetatik, haur bakoitzari zegokion puntuazioa ateratzen zen, hau da, haur bakoitzak, euskaraz eta erdaraz lortzen duen konpetentzi edo gaitasun linguistikoa.

Datorren azalpenean, sarritan agertuko diren termino batzuen esanahia, aurretik garbi geldi dadin komenigarria da:

KLEU: 2. mailakoek lortzen duten euskarazko gaitasuna.

KLER: 2. mailakoek lortzen duten erdarazko gaitasuna.

KEU: 4. eta 8. mailakoek lortzen duten euskarazko gaitasuna.

KER: 4. eta 8. mailakoek lortzen duten erdarazko gaitasuna.

Faktore edo puntuazio hauen baloreak 0-100 arteko errekorridoa dute eta expertoek diotenez 60 puntuan ezartzen da hizkuntz baten gaitasun minimoaren muga.

Adierazpen guzti hauek egin ondoren, ikerketaren ondorioak eredu linguistikoen ondorioak alegia, labur bilduz honako hauek lirarteke:

A eredu.—Lehenik eta behin, azpimarratu beharra dago, A ereduaren emaitza urria dela ez deusa ez esateagatik, ez bait dio ikasleari ematen bizi den gizartean, euskaraz baliatzeko ezaguerarik. Lehen aipatu dugun bezala, hizkuntz gaitasun minimoa lortzeko 60ko puntuazioa behar da; 8. mailako % 4a bakarrik iristen da muga horretara. Beste guztiak, nabarmenki, azpitik gelditzen direlarik.

Puntuazio minimoa lortzen duten haurrek, etxetik euskara dakitenak dira, horrek suposatzen du, eredu honetan, euskerari dagokionez, eskolak, berak ezer gutxi aportatzen duela.


Ikusten diren emaitzak kontutan hartuz gero, A. ereduak erabat desagertu behar lukeela deritzogu, Eibarko kasuan behintzat.

B eredu.—Eredu hau da, homogeneousun gutxien duena. Hiru azpieredu ongi bereiztuak ikusi bait dira horren barruan, lehen esana dugun bezala A, B edo D ereduetatik hurbilago dauden neurrian BA, BB eta BD izendatua dira.

Parekotasun edo hurbiltasun hori, bai lortzen diren emaitzetan, bai eredu bakoitzean eragin duten faktoreengan datza.

Azpieredu hauek dituzten ezberdintasun aipagarri batzuk hauek lirarteke:

- Ikastetxe batzuetan, familiz euskaldun den haurarentzat erabiltzen da, hauek suposatzen du erresultatuak ez direla berdinak izango haur erdaldunekin erabiltzen bada.




8. Maila. Euskarako eta gaztelaniako puntuazioen banaketa

- Beste faktore bat, eskolaurrean erabilitako hizkuntza da, haur asko eskolaurrean erdaraz soilik egin bait dute, honek euskara orduen gutxitzea eragiten du.


- Azkenik beste faktore aipagarriena eskolako giroa litzateke, zeren B ereduaz irakasten den eskola batzutan erdal giroa nagusia da.

Faktore hauek beste batzuen artean baldintzatzen dituzte lortutako emaitzak, horregatik sortzen dira ezberdintasun hoiek.

Hala ere B ereduko emaitzen ugaritasuna hobeto ikusteko hona hemen bi kuadro hauek.




EUSKARAKO PUNTUAZIOEN BANAKETA 2.A, B ETA D-n



EUSKARAZKO PUNTUAZIOEN BANAKETA 2. B-n AZPIEREDUAN

D credua.—Eredu hau da, uste izatekoa den bezala, euskararen irakaskuntzari dagokionez, hizkuntz gaitasunezko mailarik altuena ematen dituen. Bereziki, azpimarratzeko gauza iruditzen zaigu, gainera, beraien ikasketak hizkuntz eredu honen arabera burutzen ari diren ikasleek 4. mailarako gaztelaniaz ere lortzen duten hizkuntz gaitasuna, beraien ikasketak beste ereduen arabera egiten ari diren ikasleek hizkuntza berean lortzen duten gaitasuna mailaren berdina edo beretsua dela.

Begiratu 5. eta 6. graf.



Elebitasun modurik orekatuena ageri duten ikasleak dira, erraztasun beretsua bait dute hizkuntza batean nahiz bestean, euskaraz nahiz gaztelaniaz.

Badirudi, behin eta berriro frogatzen dela, eskolako gela jakin bat harturik, ama hizkuntza euskara duten ikasleen portzentaia ikasle guztien % 60tik gorakoa den guztietan, emaitzak ez direla oso desberdinak ama hizkuntza euskara duten ikasleen portzentaia ia % 100a den geletan ematen diren emaitzetatik.

Irakaskuntza, eredu hau zentro publiko eta pribatuetan gehiago hedatzea komeniko litzateke, bertan lortzen diren emaitzak hobetuz doazen ahala.

Aipatzekoa da, azkenik, irakaskuntz eredu honi dagokionez, emaitzak hobetzeko posibilitate handiak dituela oraindik, familiz euskalduna ez den haurrarekin erabiltzen denean batez ere.